

Jaurlaritzak aurreko grebetako zerbitzu minimoak gainditu dituela salatu du LABek, eta hala ere Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako langileek kaleak bete dituztela adierazi

LABek ikastoletan posible izan dena Gizarte Ekimenean posible bilakatu behar dela dio eta Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei ekiparazioa eskuratu bitartean 2024rako erosahalmena bermatzea, lan zamak arintzea eta sektore feminizatu eta baldintza prekarizatuenetako langileentzat hobekuntzak eskatu dizkie.

Gizarte Ekimeneko lan-hitzarmena berritzeko borrokan hamargarren eguna egin dute gaur Gizarte Ekimeneko langileek, eta gaurkoan ere milaka lagun atera dira Bilboko, Donostiako eta Gasteizko mobilizazioetan.

LABen ustez patronalek bileretara edukiak ekarri ditu, baina oraingoz ez nahikoak direnak. Norabide horretan 2024rako %15etik gorako soldata igoera eskatu diegu, 0-2 urteko hezitzaileen soldata 2 urteko hezitzaileekin parekatzea, lan-hitzarmenean bermeduna izango den birkokapen klausula jasotzea eta lan zamak jaisteko neurri konkretuak. Haur eta Lehen Hezkuntza ordu osagarri batzuk gehiago norberaren lanetarako izan behar dira, DBHn ikastoletako lan-hitzarmenean daukaten ordu-lektibo kopurua ekarri beharko lukete mahaira eta Lanbide Heziketan bikoizketak arautzeko prozedura zein konpentsazio ordu gehigarriak behar dira.

LABek patronalei eskatzen die edukietan mahaira eskaturiko eskakizun gehigarri horiek ekartzeko eta bere prestasuna adierazi negoziazioetan jarraitzeko. Atzo Ikastoletan sinaturiko akordioa Gizarte Ekimenean lortzeko eta sinatzeko baldintzak jarritz, lan-hitzarmen berria lortzeko norabidean kokatuko gintezke.

Bestetik, salatu nahi dugu Jaurlaritzak atzo aditzera eman zituen gutxieneko zerbitzuak gehiegizkoak direla eta aurreko grebetako zerbitzu minimoak gainditu dituztela. Honek Hezkuntza Laguntza Espezialistei greba eskubidea ukatu die eta onartezina da. Hori dela eta, bide juridikoari helduko diogula adierazten dugu.

Bukatzeko, adierazten dugu gainerako sindikatuekin batera beste lau greba egun deitu ditugula urtarrilaren 18, 23, 24 eta 25ean. Biharko egunean 11.30etan Donostiako Aldapeta ikastetxean elkartuko gara.

Euskal Herrian, 2024ko urtarrilaren 17an